

3.FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Guk hainbat hornitzaile desberdin erabiltzea erabaki dugu, gehienbat oso lehegai eta produktu bereziak eta konkretuak eskatu nahi ditugulako eta, zaila denez horiek hornitzaile bakar baten eskutik eskuratzea, bat baino gehiago beharko ditugu. Euskal Herritik eratorritako produktuak eskuratu nahi ditugu; bestalde, horren barruan, ecofriendly-ak izatea nahi dugu, zeliakoentzat eta kaloriak gutxikoak.



Gainera, gu geu izango gara proiektu honen bazkide eta gure artean banatuta egongo da egin beharreko lana.

Hornitzaileak garrantzitsuak izango dira, azken finean haiek izango direlako gure proiektua aurrera eramateko beharrezkoa ditugun baliabideak eskuratzea bermatuko digutenak; hortaz, ezinbestekoak dira hau arrakasta izan dezan. Gure produktuak osasunerako onak direla ziurtatzeko, soilik lehegai eta produktu ekologikoak saltzen dituzten hornitzaileekin lan egingo dugu, hala nola, *Lan Lindes* eta *La huerta de Amparo* enpresekin.

